Literatura →

Ukabilean eramateko

Iratxe Esnaola

John Steinbeckek (Salinas, Kalifornia, 1902 -New York, 1968) 1939an argitaratu zuen *Suminaren mahatsak* (The Grapes of Wrath) bere lan ezagunena. Estatu Batuetako Depresio Handiaren garaian Kalifornia estatura lan bila doan familiaren odisea kontatzen du, eta John Fordek 1940an liburuan oinarritu zuen izen bereko filmak ezagun egin zuen mundu osoan obra. Hiru urte lehenago idatzi zuen eleberri labur hau ere Depresioaren urteetan kokatua dago. Kalifornian, Salinas ibaiaren eta Gabilan mendiaren inguruko lurretan aurkitzen ditugu George Milton eta Lennie Small protagonistak, rantxo batera lan eske abiatu aurreko ilunabarrean. Etxaldez etxalde lan eske, batetik bestera dabiltzan milaka gizonen bizimoduaren erakusgarri. Pobrezia, miseria, gosea, injustiziak nabarmentzeko garaia da krisialdiarena. Eleberri labur bezain trinkoak berehala murgiltzen gaitu hogeita hamarreko hamarkadan. Etorkizuna ezin pentsatuzko aukera da, eta bizimodua gaur-gaurkoa. Soldata putetxean, edaritan, jokoan gastatzeko adinakoa, apenas. Belaunaldiaren ametsa, aldiz, eta aberastasunaren ideia, etxe bat bere soro eta animaliekin. Horixe irudikatzen ematen dituzte orduak, ametsaren eldarnioak dakartzan ondorio garratzak pairatzen amaitzeko.

Familia gabeko gizon bakartien mundua da Steinbeckek marrazten diguna. Rantxoko bizimodua, garagar alea batzeak iraun bitartean, gogorra da. Beltzekiko diskriminazio eta zapalkuntza hor daude, bai eta euren etsipena ere. Iparra galdutako gizonak, gogortuak, liskar bila dabiltzan borrokazaleak. Hierarkiak oso markatuak daude, bai, baina idatzi gabeko jokabide bat irristatzen da narratzailearen lumatik, gizon arteko ondradutasuna dei nezakeena, nagusi eta peoi artean ere lekua baduena, ohore kode ez-idatzi bat bezalakoa. Beti ere, samurtasunik agertu barik eta inoren bizian gehiegi sakontzeke. Gizonok pairatzen duten bakardadearen erdian bi protagonistek paktu bat dute elkar laguntzeko, eta horrek ezberdintzen ditu. George Milton bizkorra eta abila da. Lennie Small geldoa, gorputzez erraldoia eta lagunaren mendekoa. Batek agindu eta besteak konplitu egiten du. Liburuko gauzarik landuenetakoa da harreman hori. Elkarrizketa askorekin, eta pertsonaien kontrakotasunean oinarrituz, karakterizazio ona lortzen da. Georgek aurpegiratzen dio bakarrik hobe legokeela, Lennieren hanka sartzeengatik lana galtzeko beldurrean baitabil beti. Baina lagundu nahi dio, eta hala egiten du, nahiz gogo txarrez bezala egin, geldoa laguntzeaz lotsaturik. Iruditzen zait mundu gogor horretan Lennieren gaiztakeria falta eta apaltasunak (baina baita erailtzeko gai den indar galant kontrolaezin kontrajarriak ere) beste gizonen soslai maltzurra azpimarratzen duela. Eleberriko emakume bakarrak, aldiz, maite ez zuen rantxoko nagusiaren semearekin elkartzea beste aukerarik ez zuen izan. Gaitzespen tratua jasotzen du gizonengandik. Haien iritzien bitartez ezagutzen dugu, soilik. Arriskutsua da, gizon bila dabil, puta da. Gaitz guztien sorburua. Tratatzen horrek emakume on eta txarraren bereizketa oroitarazten du, eta, gizonen konpainia bilatzen duenean, epaitua, deitoratua, bazterreratua da. Arrakasta izan zuen eleberriak, eta film bat ere egin zuten 1992an, Gary Sinise zuzendari zuela. Baina eleberri honek zerbait iradokitzen badu, hori antzerki obra bat da. Steinbeck-ek berak antzerki pieza bihurtu zuen, eta, gaur egun, taularatzen jarraitzen da. Trinkoa da istorioa, ukabil batean bildu eta haren gogortasuna sentitzeko modukoa. 1962an Literaturako Nobel saria jaso zuenaren beste obra batzuk euskaraz irakurri nahi izatera: *Perla*, *Tortilla Flat*, *Zeruko Belardiak*, *Arthur erregearen egintzak*.



'SAGUAK ETA GIZONAK'
- **Egilea:** John Steinbeck.
- **Itzultzailea:** Iñigo Errasti.
- **Argitaletxea:** Alberdania.



'OROIMENAREN LORRATZAK'
- **Egilea.** Karlos Santisteban.
- **Argitaletxea.** Alberdania.

Blas de Otero-Bilboko Hiria poesia saria irabazi zuen Santistebanek liburu honekin. Denbora igarotzeak atzean uzten duen aztarnaz mintzo da egilea poemetan, aurrera begiratuz, baina oroimenaren gaiari loturik. Aztarna horiek poemetako eszeptizismo leunean nabaritu daitezke.



'BLOG'
- **Egilea:** Jean Philippe Blondel.
- **Itzultzailea:** Irati Fernandez.
- **Argitaletxea.** Alberdania.

Aitaren traizioak, «bortxaketa birtualak», matxinada bultzatuko du narratzailea. Hartaram aitari ez dio hitz erdirik gehiago esango. Aitak, berriz, barkamena eskatzeko modu bitxi gisa, semearen esku utzi du bere iraganean murgiltzeko aukera. Ez da, halere, ondoriorik gabeko bidaia izango.



'ULTRAMOREA'
- **Egilea:** Nancy Huston.
- **Itzultzailea:** Jon Muñoz.
- **Argitaletxea:** Alberdania.

Kanada krisi ekonomiko larriak, lehorteak eta goseteak jota dago 1936an. Lucyk 13 urte bete ditu, eta erabaki du eguneroko batean ezin esan duenaz idatziko duela: erlijioa, errebeldia, familia eta konbentzioen higuina... Mundu itxi baten gaitzespena da egileak nerabeentzat idatzi zuen lehen eleberrikoa.

↓ Haur eta gazte literatura

A elkartea

Banpiroak, trolak, aztiak, sorginak eta gizotsoak dira, besteak beste, bilduma honetako pertsonaiak, gaur egungo Parisko kaleetan gizartean dabiltzanak, inor konturatzeke.

Bilduma Jasper izeneko hamabost urteko mutilaren bizipenetan oinarritzen da, nahiz eta bigarren mailako pertsonaiei tarte zabala ematen zaien, bildumako bigarren alean Ombe izeneko neskarekin gertatzen den bezala.



'ILUNPEETAKO ARGI AHULA'
- **Egilea:** Erik L'Homme.
- **Itzultzailea.** Aitor Arana.
- **Argitaletxea.** Ibaizabal.

Jasperrek txikitatik erakutsi duen magiarako gaitasun harrigarria dela eta, A elkartea deritzon elkarte sekretuak harekin harremanetan jarri nahiko du. Elkarte horren zeregina da gizaki arrunten artean bizi diren izaki paranormalak kontrolatzea; bereziki, gizakiak elkarbizitza horren berri jakin ez dezaten, baina baita izaki mitologiko horien balizko erasoetatik babesteko ere. Hala, A elkarteak Jasper trebatu eta hezteko ardura hartuko du euretako agente bihurtzeko asmoz.

Bildumaren lehen bi ale hauek moda-modako literatura molde berrietako ezaugarriak konplitzen dituzte, eta gaia maite duten nerabeen bazka izateko egokiak dira. Halere, hutsune bat sumatzen da: euskal argitaletxeak Interneten hainbat edukia eskaintzea liburu hauen inguruan. ■ **IMANOL MERCERO**

Basque Pirtzin' Style?

Nerabeentzako eleberri labur-luzea eskaini nahi digute Donostiako taberna baten izenarekin bataiatutako obra honekin.

Dituen berrehun eta zortzi orrialdeak berrogeita hamaika ataletan banatuta daude. Testu-aringarriz josita, bai elkarrizketa bidez, bai letra lodiz nabarmendutako esaldiekin, bai eta tarte, komatxo, letra tipo aldaketa, elipsi, kanta eta erabil litezkeen bestelako aringarri guztiekin ere. Hala, ziurta genezake liburu irakurterraz bezain arina dela.

Institutu batean gertatzen da dena. Nesken dutxetan argazkiak ateratzen dituzte asmo txarreko bi ikaslek, eta, gero, beste baten sakelakoaren bidez zabaltzen. Gertaera horiek, institutu guztia asaldatzeaz batera, peskizan jartzera bultzatuko ditu protagonista, *Xato*, eta haren lagun min bat, *Pipi*, .

Ardatz nagusi horren inguruan *Xato*pertsonaiaren profila landuko da, hala nola bere haren biografiaren zertzelada batzuekin edota institutuan dituen harremanekin, bai irakasleekin, bai *Pipi*-rekin, bai bere bihotza asaldatzen duen neskarekin.

Eleberria Donostian kokatuta dago, eta hango leku eta ekintzarik topikoenei begiratu bat ematen die, turismorako gida baten antza hartzen duen pasarteekin (ikus, esaterako, 77-78. orrialdeak), iragarkiak barne (antologikoa da Fermin Calbeton kaleko taberna bateko sanjuandarren aipamena).

Amaitzeko, nabarmen dezagun irakurterraz izateko asmoarekin kaleratutako liburu bat eskaintzen zaigula. ■ **I. MERCERO**



'LARUNBATEAN BUKOWSKIN'
- **Egilea:** John Andueza
- **Argitaletxea.** Elkar.